



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/04/24

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez berretsi dabe "Indarkeria Matxistaren kontrako herritarren hitzarmena"

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe gaur, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordean, 2015eko zemendian egin zan osoko bilkuran, Adierazpen Instituzional batean, onartu zan "Indarkeria matxistaren kontrako hitzarmen herritarra" barrizteia. Oraingo honetan, Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamena onetsi dabe Bizkaiko Batzarrek, erakunde horrek, "emakumeenganako indarkeriaren adierazpen guztien kontra, eta prebentzioaren eta giza eskubideen urraketa larri horren biktima diran emakumeen eta adinbakoen arreta integralaren alde behar egiten jarraitzeko" daukan konpromisoa erakutsiz.

Testuan, gainera, "emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasunagaz eta matxismoaren kontrako burrukeagaz daukan konpromisoa indartzeko" eskaria egiten deusie Batzar Nagusiek Aldundiari, "bardintasunaren aldeko politika publikoak Bizkaiko agenda politikoaren erdian jarritz".

Batzarretako talde guztiek ezelango zalantza barik bultzatu daben ekimenean eskaria egiten jake Foru Gobernuako sail "guztiei", "Bardintasunaren aldeko politikak bultzatzen jarraitu daien Aldundiaren jardunean, baina Bizkaiko herrietan egiten dan lanari be lagunduta, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bardintasuna lortzea eta indarkeria matxistaren adierazpen ezbardinen aurka burrukatzea helburutzat daukien ekimenetan aurrera eginda, holakoetarako behar besteko baliabideak jarririk".

Proposamenak lau puntu izan ditu. Horreetako batean, Batzarretako taldeek, "Bardintasunaren eta emakumezkoen eskubideen aldeko eta soldaten ezbardintasunaren, pobreziazen feminizazioaren, matxismoen, mikromatxismoen eta gure gorputzen merkantilismoaren aurkako burrukan eta aldarrikapenetan emakumezkoen alkarte eta gizarte-mobimenduei laguntzen jarraitzeko" eskatu deusie Bizkaiko Aldundiari, "berezikeriarik bako gizarte bidezkoago bat lortze aldera, non giza-eskubideak lehentasuna izango daben".

Ekimena defendiduz, Podemos Bizkaia taldeko Asun Merinero batzordekideak "positibotzat" jo dau Batzar Nagusiek arauz besteko proposamen bat onestea, orain urtebete eta erdi onartu zan Adierazpen instituzionalak ez eukan "arauzko beste entidade bat" daukalako. Martiaren 8an Emakumearen Nazinoarteko Eguna baino egun batzuk lehenago erregistrau zan ekimenaren helburua, "gaur egun Bizkaian emoten dan giza eskubideen urraketa larrienaren" aurrean erakundeek egin behar daben beharra bultzatzea da, izan be, "biztanleriaren erdiak matxismoaren mehatxua jasaten dau". Talde moreak eta EH Bilduk, egiteko horretara "baliabide gehiago" bideratzea eskatu dabe.

Foru Gobernuak eusten daben talde biak ekimenaren alde agertu dira, euren eretxiz bat datorrelako "daborduko egiten ari danagaz". EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek, denpora gitxi barru Bardintasunerako Foru Araua egin eta onetsiko dala azpimarratu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
24/04/2017

Las Juntas Generales de Bizkaia renuevan por unanimidad el "Pacto Ciudadano contra la violencia machista"

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy, por unanimidad, en la comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, renovar el "Pacto Ciudadano contra la violencia machista", que fue acordado en pleno, en noviembre de 2015, en una Declaración Institucional. En esta ocasión, la Cámara vizcaína se ha decantado por la aprobación de una proposición no de norma, presentada por el grupo juntero Podemos Bizkaia, como compromiso de esta institución “para seguir trabajando contra las diferentes manifestaciones de la violencia hacia las mujeres, la prevención y la atención integral a las mujeres y menores víctimas de esta grave vulneración de los derechos humanos”, reza en uno de los puntos acordados.

En el texto, las Juntas Generales instan, además, a la Diputación a “reforzar el compromiso con la igualdad efectiva entre mujeres y hombres y contra el machismo, colocando las políticas públicas de igualdad en el centro de la agenda política de Bizkaia”.

En la iniciativa apoyada sin vacilaciones por todos los grupos junteros, se demanda a “todos” los departamentos del Gobierno foral a “seguir impulsando las políticas de igualdad, desde el ámbito foral pero también contribuyendo al trabajo que se realiza desde los municipios de Bizkaia, avanzando en acciones dirigidas al logro de la igualdad entre mujeres y hombres, a la lucha contra las diversas manifestaciones de la violencia machista, con dotaciones y recursos suficientes”.

En otro punto de la proposición, de un total de cuatro, los grupos junteros reclaman al Ejecutivo vizcaíno que “apoye a los movimientos sociales feministas y de mujeres en sus luchas y demandas por la igualdad, en la defensa de los derechos de las mujeres, en contra de la brecha salarial, de la feminización de la pobreza, de los machismos y micromachismos, de la mercantilización de nuestros cuerpos y a favor de una sociedad sin discriminación, justa, donde primen los derechos humanos”.

En la defensa de la iniciativa, la apoderada Asun Merinero, de Podemos Bizkaia, ha considerado “positivo” que las Juntas aprueben una proposición no de norma ya que tiene “otra entidad reglamentaria” en comparación con la Declaración Institucional aprobada hace año y medio. La iniciativa, registrada días antes de celebrarse el Día Internacional de la Mujer –el 8 de marzo– pretende impulsar el trabajo institucional frente a la “más grave vulneración de los derechos humanos existente en Bizkaia, ya que la mitad de la población vive amenazada por el machismo”. Tanto el grupo morado como EH Bildu han pedido que se destinen “más recursos” a este cometido.

Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral han apoyado la iniciativa ya que coincide “con lo que ya se está haciendo”. PNV y PSE-EE han puesto el énfasis en la próxima elaboración y aprobación de una Norma Foral de Igualdad.